

EULI FIRIRIREN FESTA

Testuaren egokitzapena: EVA MEJUTO

Irudiak: SERGIO MORA

Itzulpena: KOLDO IZAGIRRE

Kartoi gogorrean egina. 22 x 22 cm. 40 or. 13 €.
IRAKURKETAREN PLAN NAZONALA (PNL Portugal)

Euli fiririren festa (euskara)

ISBN 978-84-9172-168-0. Herri ipuinak.

La casa de la mosca fosca (gaztelania)

ISBN 978-84-8464-143-8. Cuentos tradicionales.

A casa da mosca chosca (galegoa)

ISBN 978-84-8464-155-1. Os contos do trasno.

La casa de la mosca fosca (katalana)

ISBN 978-84-16804-23-8. Contes tradicionals.

A casa da mosca fosca (portugesia)

ISBN 978-972-8781-18-7. Contos tradicionais.

La mosca fosca (italiera)

ISBN 978-88-95933-30-6. I racconti tradizionali.

The shy fly's house (ingelesea)

ISBN 978-84-8464-695-2. Books for dreaming.

Bazen behin basoan bizi zen euli bat, euli firiri.

Firirika eta firirindaka asperturik, etxe bat egitea otu zitzaion.

–Ohean egingo dut lo,

hantxe egongo naiz bero,

goxokiak prestatuko ditut

eta bisitak hartuko ditut gero...

Euli Firiri nekatu egin zen, nora ezean baitzebilen burrunban, eta etxe bat eraiki zuen basoko beste biztanle batzuk hartu ahal izateko. Masusta-tarta egin zuen, eta zazpi aulki eta zazpi plater jarri. Eta tartaren usaina adituta, animaliak agertzen joan ziren: txikiena, baina baita handiena ere: zazpi animalia xeblebre.

«Euli fiririren festa» Aleksandr Afanásievек berreskuratutako ipuin errusiar baten egokitzapena da. Protagonistek jolas atsegín batean sartzen dituzte irakurleak zenbaki, tamaina, errima, errepikapen eta erritmoei esker, horiek baitira ahozko tradizioaren osagaietako batzuk.

Kolore bizi-bizi “ia fluoreszenteez” baliatuz, Sergio Mora kreatura xeblebre sortzen ditu, transgresioa, umorea eta adierazgarritasuna dituztenak ezaugarri. Metaketa-ipuina da, jolas fonetikorako gonbita ere badena; irakurtzeko eta kontatzeko ipuina da, orrialdeak pasa ahala indarra irabaziz doana bukaera txundigarria arte.



■ **Gaia:** Errusiako herri ipuina.

■ **Adin egokia:** 5 urtetik aurrera.

■ **Nabarmentzekoak:** metaketa-ipuina da; errimak, errepikapenak (ahozko tradizioaren ezaugarri); kolore biziz eta forma originalez egindako irudiak; basoko animaliak, zenbaki eta tamainekiko jolasa

■ **Liburuaren aurrerapena:**

<https://issuu.com/kalandraka.com/docs/euli-fiririren-festa-eusk>

Eva Mejuto

(Pontevedra, 1975)

Santiago de Compostelan Unibertsitateko Informazioaren Zientzietan lizentziatua. Argialetxeen sektorean egin du lan. Haurrentzako literaturaren egile, eta ipuin tradizional batzuen egokitzaile.

Sergio Mora

(Bartzelona, 1975)

Bartzelonako Arte eta Ofizioen Eskolan ikasi zuen, Lotjan. Mugimendu Pop Surrealistaren protagonistetako bat. Diziplina askotako artista, haurrentzako liburuetako irudien egilea, bideo-egilea, margolaria, diseinatzailea, dekoratzailea, performerra eta komiki-egilea. Kolaboratzailea hainbat herrialdetako aldizkaritan. Publizitate kanpainetan hartzen du parte. Haren lanak –Magicomora goitizenaekin batzuetan- Espainiako eta nazioarteko galeria eta azoka batzuetan izan dira ikusgai. Junceda saria irabazi du (2004 eta 2010), baita Diseinuko Grammy Latinoa ere (2016).

<http://www.sergiomora.com>

